



## BESAPEKO HIPERHIDROSIAREN TRATAMENDUA TOXINA BOTULINIKOAREKIN.

- Tratamendua Dermatologiako Kanpo Kontsultan egingo da.
- Besapeko ilea moztu egin behar da toxina botulinikoarekin infiltrazioak egin baino bi egun lehenago.
- Anestesiko topiko bat eman behar da, kantitate handian, bi besapeetan (Lambdalina Crema<sup>®</sup>-lidokaina), infiltrazioa egin baino 60 minutu lehenago.
- Infiltrazioen ondoren, baliteke inurridura, astuntasuna, beroa eta abar sentitzea. Bestelako ondoezik nabaritzen baduzu, galdetu dermatologoari.
- Hitzordua eskatu behar duzu tratamendua egin ostean 30 eguneko epean Dermatologiako Kanpo Kontsultara etortzeko.
- 15-30 egunetik aurrera, izerdia gutxitzen dela nabaritzen hasiko zara, eta, gutxienez, 6 hilabete iraungo du (batzuetan, gehiago).